



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 5a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA


- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua (5. or.).</p> <p>III. Norainokoa (6. or.).</p> <p>IV. 2014ko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (8. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (11. or.).</p> <p>V. 2014ko kontu orokor bateratuaren laburpena (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Egoera-balantze bateratua (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Galeren eta irabazien kontua (15. or.).</p> <p>VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Langileak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Inbertsioak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Hirigintza (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. "Ciudad Deportiva Tafalla S.A." sozietatea (21. or.).</p> <p>Eranskina. Udalaren 2014ko kontu orokorraren oroitidazkia.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, 2014ko ekitaldirako bere jarduera-programari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren menpeko enteen 2014ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Udalerriak 98,3 km² dauzka, eta, 2014ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera, 10.966 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako grafiko honetan ikusten da:



Entitate horien datu ekonomiko nagusiak 2014ko ekitaldiaren amaieran honako hauek ziren:

- Administrazioaren Sektore Publikoa: Tafallako Udalak hiru erakunde autonomo ditu zerbitzu publikoak eskaintzeko: Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua. 2014ko abenduaren 31n honako kopuru hauek agertzen dituzte:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	9.049.027	10.297.342	130
Udalaren Musika Eskola	486.450	215.900	16
Kultur Patronatua	436.141	32.295	6
Kirol Patronatua	257.059	15.303	9
Guztira	10.228.677	10.560.840	161

Oharra: 2014ko abenduaren 31ko langileen artean, tailer-eskolakoak diren 18 langile daude (2013n, 22 ziren), eta beste 11 gizarte enplegutik heldu direnak (2013an, 2 ziren).

Udalak 2014an bere erakunde autonomoei egin dien ekarpena 916.151 eurokoa izan da (Udal Musika Eskola, 270.550 euro; Kultura Patronatua, 403.846 euro, eta Kirol Patronatua, 241.755 euro).

- Enpresen Sektore Publikoa. 2001ean, Udalak “Ciudad Deportiva Tafalla S.A.” (CDTSA) pertsona bakarreko sozietatea eratu zuen kirol-hiria eraiki eta kudeatzeko, eta Udala bera da bertako akziodun bakarra. Ez du langile berekirik, eta lehiaketa publiko bidez esleitura dauzka kirol-instalazioen kudeaketa eta taberna-kafetegiaeren ustiapena. 2014an, datu ekonomiko hauek ditu (eurotan):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2014-12-31n
Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.	261.652	558.685	(297.033)	-

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Mairagako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.
- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.
- Tafallako eskualdeko gizarte-zerbitzuen Udalarteko Elkarte.

Halaber, Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) parte hartzen du.

Udal honek eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak hauek dira, zerbitzu horiek eskaintzeko moduren arabera:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Emakida	Zerbitzu kontratuak
Administrazio-zerbitzu orokorrak	x				
Udaltzaingoa	x				
Musika eskola		x			
Hirigintza	x				
Ur-hornidura			x		
Hiri hondakinak			x		
Bideak garbitzea					x
Udal hilerria	x				
Euskararen udal zerbitzua	x				
Ikastetxeen mantentzea	x				
Ludoteka	x				
Kontsumitzaileen informaziorako zerbitzua	x				
San Sebastián Gizarte Etxea	x				
Gizarte zerbitzuak	x				
Etxeko arreta	x				
Liburutegia		x			
Kultur etxea		x			
Babestutako enplegu soziala	x				
Berdintasuna	x				
Gazteen Etxea	x				
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x				
Errolda	x				
Herritarren parte-hartzea	x				
Diru-bilketa	x				
Diru-bilketa exekutiboa	x				x
Futbol-zelaiak	x	x			
Tafallako kirol-hiria				x	
Ereta kirol-eremua		x			
Zidacos pilotalekua	x				

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Emakida	Zerbitzu kontratuak
Patinatzeko pista	x				
Tenis pistak		x			
Musika eskola		x			
Lantegi-eskolak	x				

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2014ko ekitaldiari dagokion aurrekontua 2013ko abenduaren 30ean onetsi da. 2014ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa 2014ko apirilaren 24an onetsi da.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, kontu orokorraren laburpena ageri da, Udalaren egoera-orri finantzario nagusiekin. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo. Horrez gainera, "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatearen kontuei buruzko hainbat iruzkin jasotzen dira.

Halaber, eranskin batean sartu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuekin egindako oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren mendeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Tafallako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen garrantziko alderdi guztiei dagokienez, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Aplikatzekoa zaion legedia zer neurritan betetzen den Tafallako Udalak eta haren mendeko erakunde autonomoek 2014an aurrera eramandako jardueran.

- Tafallako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoera zein den.

- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2013ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txosten honetan, Udalean eta haren mendeko erakundeetan ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Tafallako Udalaren 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen kontua (Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua): Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” udal sozietatearen urteko kontua. Sozietate horren kapital osoa Udalarena da.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Udalaren eta udal sozietatearen balantze bateratua aurkeztu da.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: “Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak” izeneko ISSAI-ES 200 araua eta “Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak” izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeke teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administrazioak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolleko alderdi nagusiak.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza-sozietateari dagokionez, haren urteko kontuez kontu-hartzaileak, finantzaketa kontrolatzeko duen eginkizuna betez, egindako berrikusketa-txostena aztertzea izan da egin dugun lana.

IV. 2014ko EKITALDIKO KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Tafallako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezatasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezatasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezatasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezatasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratorzen da, salbuespen bat ere baduena.

IV.1. UDALAREN 2014ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezi-nezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; haren zenbateko bateratua, 2014ko abenduaren 31n, 45,7, milioi eurokoa zen.

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen montepioetako betebeharrak aktuarialak, montepio hori, lanean diharduen langile berririk sartzen ez denez, iraungitze-prozesuan badago ere. Abenduaren 31n, 44 pertsona zeuden pentsioak jasotzen zituztenak eta 17 pertsona jardunean zeudenak.

- Arestian aipatutako salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurre-

kontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio jasotzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontuak 11,6 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; kopuru horri 0,12 milioi euro gehitu zaizkio aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrekin guztiaren, behin betiko aurrekontua osatu da, 11,73 milioi eurokoa.

Aitortutako betebeharrak 10,2 milioi eurokoak dira, eta aitortutako eskubideak, berriz, 10,6 milioi eurokoak. Horrek esan nahi du aurrekontu bateratuaren betetze-maila ehuneko 87koa dela gastuetarako eta ehuneko 90ekoa, berriz, diru-sarrerarako.

Gastuetan, inbertsioek batez besteko betetze-maila baino apalagoa ageri dute –ehuneko 48koa– bai eta kapital-transferentziek ere –ehuneko 17koa–.

Aitortutako eskubideen kasuan, exekuzio maila apalagoak zeharkako zergei (exekuzioaren % 78) eta transferentzietatik heldu dira (2013an, ehuneko 47 ziren). Zorpetze bidezko diru-sarrerak, diru-sarrera guztien ehuneko 3 dira.

Gastuen izaerari begiratu gero, gastu arruntek eta kapital- eta finantza-gastuek gastu guztien ehuneko 86 eta ehuneko 14 egiten dute, hurrenez hurren (2013an, ehuneko 85 eta 15 ziren). Finantza-zama gastu osoaren ehuneko 6 da.

Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 92 dira (2013an, ehuneko 91 ziren); diru-sarreren ehuneko 41 jasotako transferentzietatik heldu dira (2013an, ehuneko 47 ziren). Zorpetze bidezko diru-sarrerak, diru-sarrera guztien ehuneko 3 dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera		Finantzabidea	
Langileak	58	Tributu bidezko diru-sarrerak	46
Bestelako gastu arruntak	27	Transferentziak	46
Inbertsioak	9	Ondare bidezko diru-sarrerak	5
Finantza-zama	6	Zorduntzea	3
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuaren betetzeari buruzko adierazleak eta 2013az geroko bilakaera:

	2014	2013	Aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.228.678	10.823.058	% -5
Likidatutako eskubideak, guztira	10.560.840	10.854.597	% -3
Gastuen betetzea (%)	% 87	% 92,87	
Diru-sarreraren betetzea (%)	% 90	% 90,88	
Ordainketak (%)	% 87	% 89,16	
Kobratutakoa (%)	% 88	% 93,72	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	8.852.842	9.228.514	% -4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	8.756.475	9.126.581	% -4
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	929.564	1.027.380	% -10
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	546.272	567.165	% -4
Gastu arruntak (1. kapitulutik 5.era)	9.643.781	9.908.029	% -3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.767.622	4.846.683	% -2
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	567.059	609.367	% -7
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	350.000	337.200	% 4
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	% 46,41	% 47,20	% 0
Zergen bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	% 53,85	% 52,52	% 3
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	528.434	261.502	% 102
Aurrekontu-emaizta doitua	332.163	177.636	% 87
Aurrezki gordina	887.306	781.450	% 14
Finantza-zama (3. kapitulutik 9.era)	642.638	669.098	% -4
Aurrezki garbia	244.668	112.352	% 18
Zorpetze maila (%)	% 6,66	% 6,75	
Zorpetze muga (%)	% 9,2	% 7,89	
Zorpetze-ahalmena (%)	% 2,54	% 1,13	
Diruzaintza-gerakina, guztira	162.199	9.262	% 1651
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	162.199	9.262	% 1651
Zor bizia	5.020.035	5.216.307	% -4
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 52,05	% 52,65	% -1
Biztanle bakoitzeko zor bizia	458	466	% -2
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	5,66	6,68	% -18

Tafallako Udalak, 2014an, aurreko ekitaldian baino ehuneko 5 gutxiago gastatu du (0,6 milioi euro gutxiago); gastuak murrizteko joerarekin jarraitu du, kapitulu guztietan jaitsi baitira. Bestalde, Udalaren diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 3 –hau da 0,3 milioi– txikiagoak izan dira.

Izaera arrunteko gastuek ehuneko lau egin dute behera, funtsean langile-gastuak txikiagoak izan direlako (ehuneko lau) eta ondasun eta zerbitzuetako gastuak ere ehuneko bost txikiagoak izan direlako. Diru-sarrera arruntak, berriz, ehuneko hiru jaitsi dira, batez ere tasek eta bestelako diru-sarrerak ehuneko 15 behera egin dutelako.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (diru-sarrerak ken gastu ez-finantzarioak) 0,53 milioi positiboa da; 2013an, ordea, 0,26 milioikoa izan zen.

Aurrekontu-emaizta doitua 332.163 euro positiboa da. Haren balioak 2013koaren aldean gora egin du, urte hartan 177.636 euro positiboa izan baitzen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak positiboak izaten jarraitzen dute; izan ere, ehuneko 14 eta 18 egin dute gora, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila ehuneko 6,66koa da (ehuneko 6,75ekoa 2013an), eta haren muga ehuneko 9,2koa da (2013an, ehuneko 7,89koa); horren ondorioz, zorpetze berri baterako ahalmen ekonomiko pixka bat badu oraindik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea 162.199 eurokoa da, 2013an izan zena baino handiagoa, orduan 9.262 eurokoa izan baitzen.

Epe luzerako zor bizia 5,02 milioi eurokoa da (5,22 milioiokoa 2013an); zor hori –biztanle ba-koitzeko 458 euroraino iristen dena– entitatearen diru-sarrera arrunten ehuneko 52 da, legeak gaur egun zor gehiago egiteko jartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera. 2014an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 5,6 urte beharko lirateke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Tafallako Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Ka-pitu-lua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Zuzeneko zergak	2.626.797	2.639.421	2.843.728	3.093.026	2.969.916	3.033.857	3.104.311	3.383.687	3.269.790
2	Zeharkako zergak	417.273	640.837	664.037	471.422	962.413	395.350	531.657	26.644	277.352
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.199.462	1.708.511	1.683.117	1.887.818	1.542.372	1.659.709	1.425.168	1.436.352	1.220.480
4	Transferentzia arruntak	4.230.434	4.466.033	5.052.917	5.091.660	5.198.166	4.920.909	4.543.324	4.514.364	4.334.724
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	412.103	307.534	335.699	399.121	418.274	356.742	415.252	546.982	541.435
6	Inbertsio errealen besterentzeta	491.087	927.919	4.039.219	2.852.658	701.957	106.082	176.272		
7	Kapital-transferentziak	1.797.531	1.310.054	4.076.988	9.805.858	6.176.907	3.048.648	2.418.531	609.367	567.059
8	Finantza-aktiboak				48.000		620.100	698.600	337.200	350.000
9	Finantza-pasiboak									
	Guztira	11.174.687	12.000.309	18.695.705	23.649.563	17.970.005	14.141.397	13.313.115	10.854.596	10.560.840

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Ka-pitu-lua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Langile-gastuak	5.608.948	5.604.907	6.308.694	6.419.826	6.587.705	6.559.472	6.053.268	6.196.719	5.921.542
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.460.535	2.633.635	2.801.473	2.882.232	2.851.509	2.629.306	2.497.212	2.548.961	2.484.881
3	Finantza-gastuak	284.427	344.796	346.619	235.779	94.403	117.803	145.629	101.933	96.367
4	Transferentzia arruntak	442.834	498.782	485.901	377.634	358.823	281.212	332.720	380.901	350.052
6	Inbertsio errealak	457.295	3.044.115	5.018.955	12.182.688	6.811.003	4.537.764	4.197.117	889.780	819.564
7	Kapital-transferentziak	50.000	551.083	1.768.698	93.400	35.954		6.000	137.600	10.000
8	Finantza-aktiboak		48.000							
9	Finantza-pasiboak	660.928	703.061	624.400	675.574	619.914	618.655	540.438	567.165	546.272
	Guztira	9.964.967	13.428.379	17.354.740	22.867.133	17.359.311	14.744.212	13.772.384	10.823.059	10.228.678

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, Udalak, 2007tik 2012ra, inbertsio-prozesu handia izan du, 35 milioi eurotik gorakoa, eta horrek, logikoa denez, kapital-transferentzietan diru-sarrera handiak ekarri dizkio. 2012tik aurrera, ikusten da gastu arruntari eutsi egin zaiola eta inbertsioek, berriz, behera egin dutela. Diru-sarreretan kapital-transferentziak eta pasiboak kenduz gero, ikusiko dugu, oro har, antzeko zenbatekoei eutsi zaizkiela.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze-ahalmena	% 2	% 2	-
Inbertsio-indizea	% 31	% 8	% -74
Gastu arrunta biztanleko	842 €	807 €	-4
Tributu diru-sarrerak biztanleko	447 €	435 €	-3

Ikus daitekeen bezala, egoera egonkorra da, inbertsioen bolumenak nabarmen behera eginda.

Azken batean, Udalaren 2014ko ekitaldiko egoera finantzarioak zorpetze-ahalmena eta diru-zaintza-gerakin positiboa erakusten ditu, eta bi magnitude horiek hobeak dira aurreko ekitaldi-koak baino; zorrak diru-sarrera arrunten ehuneko 52 egiten du.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

IV.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzaren eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	528.434
Doikuntzak	31.279
Finantzatzeko ahalmena	497.155

Horrenbestez, ikusi da Tafallako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintza betetzen duela, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez –2013ko ekitaldiari buruzkoa da– kudeaketa-gomendio hauek bete diren edo betetzeko bidean dauden adieraziko dugu:

- *Udal planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

Oraindik betetzeko daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, aholku garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotzea, altak eta bajak kontrolatzeko sistema bat ezarri.*

V. 2014ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeke dagoena
1. Langile-gastuak	6.234.300	58.400	6.292.700	5.921.542	94	5.828.924	98	92.619
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	2.552.600	83.900	2.636.500	2.484.881	94	2.117.001	85	367.880
3. Finantza-gastuak	164.800	-54.200	110.600	96.367	87	83.373	87	12.993
4. Transferentzia arruntak	336.700	36.100	372.800	350.052	94	269.667	77	80.386
6. Inbertsio errealak	1.705.300	7.200	1.712.500	819.564	48	95.123	12	724.441
7. Kapital-transferentziak	60.000		60.000	10.000	17		-	10.000
9. Finantza-pasiboak	553.600	-5.500	548.100	546.272	100	546.271	100	
Guztira	11.607.300	125.900	11.733.200	10.228.678	87	8.940.359	87	1.288.319

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	3.197.300	20.500	3.217.800	3.269.790	102	3.097.992	% 95	171.798
2. Zeharkako zergak	355.800		355.800	277.352	78	-15.327	% -6	292.679
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.284.000		1.284.000	1.220.480	95	1.095.895	% 90	124.585
4. Transferentzia arruntak	4.510.800	105.400	4.616.200	4.334.724	94	4.093.249	% 94	241.476
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	494.100		494.100	541.435	110	444.713	% 82	96.722
6. Inbertsio errealak besterentzea	100		100					
7. Kapital-transferentziak	1.404.600		1.404.600	567.059	40	215.924	% 38	351.134
8. Finantza-aktiboak								
9. Finantza-pasiboak	360.600		360.600	350.000	97	350.000	% 100	
Guztira	11.607.300	125.900	11.733.200	10.560.840	90	9.282.447	88	1.278.394

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	10.560.840	10.854.597
– Aitortutako betebeharrak	10.228.678	–10.823.058
= Aurrekontu-emaiza	332.163	31.539
Doikuntzak		
– Finantzetaren desbideratze positiboak		–
+ Finantzetaren desbideratze negatiboak		58.433
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzaturako gastuak		87.664
= Aurrekontu-emaiza doitua	332.163	177.636

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.187.155	1.113.878
(+) Diru-sarreren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.003.506	943.833
(+) Diru-sarreren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.312.828	1.144.665
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	36.039	14.957
+ Ordainketen itzulketak	218	4
– Bilketa zaileko eskubideak	-1.154.874	–979.537
– Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-10.562	–10.044
– Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.682.259	1.811.078
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.288.533	1.172.740
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	32.180	32.180
+ Diru-sarreren itzulketak	4.467	279.354
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	357.650	326.974
– Aplikatzeko dauden gastuak	-571	–171
+ Diruzaintzako funts likidoak	657.304	706.463
+ Finantzetaren desbideratze metatu negatiboak	–	–
Diruzaintza-gerakina, guztira	162.199	9.262
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	–	–
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	–	–
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	162.199	9.262

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A Ibilgetua	45.739.905	44.985.456
1 Ibilgetu materiala	40.433.769	40.206.793
2 Ibilgetu ez-materiala	3.550.274	3.022.802
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak		
4 Herri-ondasunak	1.752.500	1.752.500
5 Finantza-ibilgetua	3.362	3.362
C Zirkulatazalea	3.051.879	2.852.174
7 Izakinak		
8 Zordunak	2.378.007	2.110.701
9 Finantza-kontuak	673.872	741.473
Aktiboa, guztira	48.791.784	47.837.630

Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	42.061.648	40.878.072
1 Ondarea eta erreserbak	13.579.140	12.285.229
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	777.051	1.454.445
3 Kapitaleko diru-laguntzak	27.705.457	27.138.398
C Epe luzeko hartzekodunak	5.020.035	5.216.306
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	5.020.035	5.216.306
D Epe laburreko hartzekodunak	1.710.101	1.743.252
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.699.539	1.733.208
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	10.562	10.044
Pasiboa, guztira	48.791.784	47.837.630

V.5 GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Amaierako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	636.854	660.245
61 Langile-gastuak	5.103.466	5.345.312	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	1.059.960	1.257.894
62 Finantza-gastuak	96.367	101.933	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.760.533	2.695.132
63 Tributuak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	575.299	571.396
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.474.556	2.535.496			
65 Gizarte prestazioak	828.401	864.871	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	4.334.724	4.514.364
67 Transferentzia arruntak	350.052	380.901	77 Kapitalaren gaineko zergak	211.271	143.803
68 Kapital-transferentziak	10.000	88.337	78 Bestelako diru-sarrerak	65.141	65.196
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	951.809
Ustiapen-mozkina	780.939	1.542.989	Ustiatzeagatiko galerak	-	-
Guztira	9.643.782	10.859.839	Guztira	9.643.782	10.859.839

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	780.939	1.542.989
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (Saldo zorduna)	3.888	88.544	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (Saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia, guztira	777.051	1.454.445	89 Galera garbia, guztira	-	-
Guztira	780.939	1.542.989	Guztira	780.939	1.542.989

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2014ko urteari dagokion aurrekontua 2013ko abenduaren 30ean onetsi da. Aurrekontuaren likidazioa 2015eko apirilaren 24an onetsi zen. Kontu orokorrak eranskin gisa biltzen ditu Udalaren erabateko partaidetza duen sozietatearen finantza-egoerak, bai eta egoera-orri bateratu batzuk ere, nola baita Udalaren eta CDTSAren egoera-balantze bateratua, berari buruzko azalpen-ohar batzuekin.

- Gaur egungo egoera ekonomikoan, aurrekontuak ahalik eta egokien planifikatzeko, ahalik eta zehatzen ezagutu behar da, gure iritzian, udal funtzionarioen montepioko pentsio-sistematik heldu diren betebeharren gaur egungo balioa. Jakin beharra dago, nolahi ere, montepio hori iraungitzen ari dela, ez delako bertan sartzen lanean diharduen langile berririk.

- Ez da ikusi 2014ko ekitaldikoak izan eta 2015ean kontabilizatutako kopuru handiko fakturarik.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1993an egin zen, eta ez da gaurkotu, nahiz eta udal zerbitzu ezberdinei atxikiriko ondasunen zerrenda gaurkotu bat badagoen, kostu-azterlanerako egingakoa.

Udalaren ondasunen eskriturazte- eta erregistratze-prozesua burutzeko dago.

Udalak, 2009ko abenduaren 1ean, eskritura publikoan gauzatu zuen “Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” entitateari egoitza berria eraikitze dohainik egindako ondare-ondasuna den hiri-lursailaren lagapena, 862.963 euroko balioa duena. Lagapen horren baldintza da hogeita hamar urtez zahar-etxearentzat erabili behar dela, eta ez da egoitza hori hirugarrenei lagatzeko eta errentan emateko baimenik ematen. Orain arte lagapen-baldintzak betetzen ari dira.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2014ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	%	Metatutakoa (%)
2015	429.353	8,55	8,55
2016	454.353	9,05	18
2017	454.353	9,05	27
2018-2022	2.285.746	45,53	72
2023-2032	1.396.229	27,81	100
Guztira	5.020.034	100,0	8,55

- Udalak aurkeztutako oroitidazkiak ingurumena babestu eta hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko edota horretara egokitzeko neurriei buruzko atal bat erantsi du.

- Karitatearen Ama Birjinaren ospitaleak, zeina entitate pribatu gisa definituta baitago, 140.000 euroko mailegu bat jaso du, 10 urtetan ordaintzekoa, Udalaren “comfort letters”¹ batekin bermatua. Mailegu horren zor bizia 103.833 eurokoa zen 2014ko abenduaren 31n.

¹ Enpresa-taldeetan erabili ohi den finantza-tresna bat da, zeinaren bidez sozietate nagusiak edo gehiengoak duen bazkideak sozietate filial bati kreditu-entitateen aurrean finantza-babesa emateko –eta, kasua bada, behar diren finantza-betebeharrak bere gain hartzeko– konpromisoa hartzen baitu lehendik dagoen edo egitekoa

• Udalak zenbait prozedura judizialetan dago sartuta; horietan, beren zenbateko ekonomikoa dela-eta, hauek dira aipagarrienak:

a) 12-4672 gora jotzeko errekurtsua, zeinaren bidez Udalari 54.486 euroko kalte-ordain bat erreklamatzeko baitzaio. Kalte-ordaina 2014an ordaindu da.

b) 311/2012 prozedura arrunta (administrazioarekiko auzi-errekurtsua), EIOZaren behin betiko likidazioa dela eta. 217.000 euro egiten du. Azkenik, 2013ko ekitaldian, partzialki baietsi da likidazioa, eta Udala 173.951 euro ordaintzera behartu da. Kalte-ordaina 2014an ordaindu da.

Hona gure gomendioak:

• *Udal funtzionarioen montepiotik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatzea eta haiek balantzean kuantifikatzea.*

• *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea.*

• *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adieraziz.*

• *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta hark kontabilitatean ibilgetuarekin lotura izatea bermatu eta bideratzeko.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 5,9 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 58 eta gastu arrunten ehuneko 67.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 4,44 egin du behera, ondoko taulan erakusten den bezala (eurotan):

Langile-gastuak	2014	2013	2014-2013 aldea (%)
Goi-karguak	94.413	92.798	1,74
Funtzionarioak	1.557.322	1.498.108	3,95
Lan-kontratudun finkoak	749.246	755.899	-0,88
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.522.368	1.704.674	-10,69
Gizarte-zamak	1.998.194	2.145.240	-6,85
1. kapitulua, guztira	5.921.542	6.196.719	-4,44

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko plantilla organikoa onetsi zuen. 2014ko apirilaren 22ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

den kontratu batengatik –arruntena kreditu edo mailegu bat izaten da–. Beste berme-elementu bat da, finantza-merkatuak eskatu ohi dituenen (aktiboak, prenda, abalak...) osagarri.

2014ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 161 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika eskola	Kultur Patronatua	Kirol Patronatua	Guztira
Kanpoko-izendapen librea	1	–	–	–	1
Funtzionarioak	33	3	2	1	39
Lan-kontratudun finkoak	17	6	1	–	24
Aldi baterako lan-kontratudunak	79	7	3	8	97
Guztira	130	16	6	9	161

Aldi baterako langileen artean gizarte enplegu babestuko 11 langile eta eta tailer eskolako 18 langile daude.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, 28tan jaitsi da enplegatu-kopurua.

Udalaren berariazko langileak –130– honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Administrazio orokorra	13
Udaltzaingoa	21
Hirigintza	5
Obretako brigada	9
Parkeak eta lorategiak	1
Arlo ekonomikoa	6
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	3
Etxez etxeko laguntza	11
Gazteak	5
Haur Eskola	14
Gainerako zerbitzuak	13
Babestutako enplegu soziala	11
Tailer-eskola	18
Guztira	130

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. 2014ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

2014an pentsioren bat jasotzen duten Udaleko Montepioko langile kopurua 44 pertsonako da, eta 0,74 milioi euroko gastu garbia izan da kontzeptu honetan.

Montepioari dagokionez, adierazi beharra dago 2014ko abenduaren 31n 44 pentsiodun zeudela, honako banaketarekin: 17k erretiroko pentsioa jasotzen zuten; 20k alarguntasun-pentsioa, eta 7k zurtasun-pentsioa. Jardunean daudenak 17 pertsona dira.

Montepioaren tamaina dela eta hartan funtzionario berriak sartzen ez direnez, zerbitzu ekonomikoek ez dute jotzen beharrezkoa denik azterlan aktuarialik egitea.

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan egindako gastuak 2,48 milioi eurotaraino iritsi dira 2014ko ekitaldian. Kopuru horretatik, Udalari 2,1 milioi dagozkie, Kultura Patronatuari 277.364 euro, Kirol Patronatuari 75.486 euro, eta Musika Eskolari 29.800 euro.

Gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 24 hartzen du, eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 28. 2013ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 3 jaitsi da.

Kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastu horiek fakturekin justifikatuta daudela eta zuzen kontabilizatu direla egiaztatu da, nahiz eta alderdi hauek hobetu litezkeela ikusi den:

- Egin gabe jarraitzen du kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzua kontratazeko prozesuak; zerbitzu horren gastua, 2014an, 23.767 eurokoa izan da.
- Ikusi da muga-egunera heldu diren laguntza teknikoko kontratuak badaudela, zeinetan zerbitzua ematen jarraitzen baita.

Hona gure gomendioak:

- *Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea.*
- *Muga-egunera heldutako kontratuen lizitazio-prozedura gauzatzea.*

VI.4. INBERTSIOAK

2014ko ekitaldirako aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioetatik -0,8 milioi euro-ehuneko 48 bete da. Gastu horrek ekitaldian aitortutako betebeharren gutzizkoaren ehuneko 9 hartzen du. Ia inbertsio guztiak Udalak egin ditu.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, inbertsioetan egindako gastua ehuneko 10 gutxitu da.

Inbertsioen kapituluko gastu-lagin bat eta 2014an esleitutako kontratazio-espeditente hauek aztertu dira (BEZik gabeko zenbatekoak):

Deskribapena	Kontratu mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Kaleetako zoladura jartzea	Obrak	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	52.455	4	43.081
Eserlekuak	Hornidura	Irekia, European publizitatea eginda	113.058	4	80.802
Ereta parke publikoa	Obrak	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	68.956	2	58.613
Argiteria eki-poak	Hornidura	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	42.975	5	34.676
Haga edo mozketak motorizatuak	Hornidura	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	34.711	2	32.592

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia – alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuen zenbatekoa 10,56 milioikoa izan da; horietatik, Udalari 10,3 milioi dagozkio, Musika Eskolari 215.900 euro, eta Kultura eta Kirol Patronatuari, 32.395 eta 15.303 euro, hurrenez hurren.

Ehuneko 92 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerak dira, eta gainerakoa kapital-eragiketen eta finantza-eragiketen bidezkoak. Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak -4,75 milioi euro- eta transferentzia arruntak -4,33 milioi euro- nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzeko-maila ehuneko 90ekoa izan da. Zeharkako zergen kapituluak, aitortutako eskubideek 277.352 euro egiten dute; haietatik, 267.207 euro kobratu dira. Hala eta guztiz ere, diru-bilketa garbia 15.327 euro negatiboa da, zeren eta aurreko ekitaldietako EIOZetatik heldu diren 282.535 euro itzuli baitira.

2013ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 2,71 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2014	Aitortutako eskubide garbiak, 2013	2014/2013 aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	3.269.790	3.383.687	% -3,37
2 Zeharkako zergak	277.352	26.644	% 940,95
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.220.480	1.436.352	% -15,03
4 Transferentzia arruntak	4.334.724	4.514.364	% -3,98
5. Ondare diru-sarrerak	541.435	546.982	% -1,01
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	9.643.781	9.908.029	% -2,67
6 Inbertsio errealeen besterentzea	0	0	
7. Kapital-transferentziak	567.059	609.367	% -6,94
9. Finantza-pasiboak	350.000	337.200	% 3,80
Kapitaleko eta finantzaketa bidezko diru-sarrerak (6tik 9ra)	917.059	946.567	% -3,12
Diru-sarrerak, guztira	10.560.840	10.854.596	% -2,71

Nabarmentzekoa da tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretan izandako jaitsiera - ehuneko 15,03koa-, bai eta zeharkako zergei buruz aipatutakoa ere, haien aitortutako eskubi-deetan, 2013an, itzulketak izan baitziren.

2014an, 0,35 milioi euroko epe luzerako mailegu bat hartu zen.

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da, eurotan:

Zergak	Aitortutako eskubideak (2014)	Aitortutako eskubideak (2013)	2014/2013 aldea (%)
Lurraren kontribuzioa	2.024.260	2.037.016	-0,63
Ibilgailuak	575.338	571.396	0,69
Lurren balio-gehikuntza	211.271	143.803	46,92
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	458.921	631.472	-27,33
EIOZa	277.352	26.644	940,95
Guztira	3.547.142	3.410.331	4,01

Oro har, zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko 4 egin dute gora.

Udalak aplikatutako zerga-tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Zerga	2/1995 Foru Legea	Udala
Lurraren kontribuzioa	0,10 – 0,50	0,296
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1 – 1,4	1,32 – 1,40
Lurren balio igoeraren gaineko zerga.		
Gaurkotze-koefizientea	2,1–3,6	3,4–3,6
Zerga-tasa	8–20	9
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 – 5	5

Diru-sarrereren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

VI.6. HIRIGINTZA

Tafallako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra ize-neko organo baten bitartez. 2014ko ekitaldiko plantilla organikoan adierazten denaren arabera, bertako jarduerak egiteko izendatutako langileak honako hauek dira: bi arkitekto, arkitekto tekniko bat, administrari bat eta administrari laguntzaile bat.

Horrez gainera, 2014ko ekitaldian, Udalak 16.655 euroko betebeharrak batzuk aitortu ditu, kanpoko hirigintza-aholkularitzagatik.

Tafallako Udalaren Antolamendu Plana 1994an onetsi zen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Udala hasia da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiteak egiten, 2011ko maiatzaren 13ko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin sinatzeko hitzarmena onartzeko hartutako erabakiaren bidez.

Udalaren lurzoru-ondarea ez da erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu ondasun horien sarreraren eta irteeraren berri ematen duen erregistrorik.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintza-jardueren lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugunaren arabera, behar bezala izapidetu dira, oro har.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gaineko ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

VI.7. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA S.A." SOZINETATEA

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." pertsona bakarreko sozietatea da, eta Tafallako Udala du akziodun bakarra. 2001ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, 13,9 milioikoak guztira.

2014ko ekitaldiko urteko kontuak txosten honi erantsiriko oroitidazkian sartuta daude eta Udaleko kontu-hartzaileak egin zuen horien finantza-kontrolerako berrikusketa.

Ekitaldiaren emaitzak, 2014ko abenduaren 31n, negatiboa izaten jarraitzen du (-297.033 euro). Honako taulan xehakatu dugu:

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Ekitaldiko emaitzak	-268.079	-215.659	-251.277	-288.328	-262.869	-282.333	-297.033
Ibilgetuaren amortizazioa	330.615	333.308	333.951	334.282	334.455	497.285	499.210
Emaitzak amortizaziorik gabe	62.536	117.649	82.674	45.954	71.586	214.952	202.177
Kapitaleko diru-laguntza, emaitzari aplikatua	51.297	51.297	51.297	51.297	51.297	213.253	216.693
Amortizaziorik gabe eta kapitaleko diru-laguntza aplikatu gabe ordaindutakoa	11.239	66.352	31.377	-5.343	20.289	1.699	-14.516

2014ko eta 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek –urteko kontuetan sarturik daude– honako saldoak erakusten dituzte:

Egoera-balantzea

Aktiboa	2014	2013	Pasiboa	2014	2013
Aktibo ez-korrontea	18.167.736	18.586.043	Ondare garbia	18.192.441	18.706.167
Lurrak eta ondasun naturalak	2.630.900	2.630.900			
Eraikinak	15.403.249	15.333.899	Kapitala	13.917.000	13.917.000
Lanabesak	1.175	1.175	Borondatezko erreserbak	-57.152	-57.152
Bestelako instalazioak	3.815.966	3.805.025	Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa	-2.730.885	-2.448.552
Altzariak	9.110	8.499	Ekitaldiko galerak	-297.033	-282.333
Amortizazio metatua	-3.692.665	-3.193.455	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	7.360.511	7.577.204
Aktibo korrontea	41.413	128.083	Pasibo arrunta	16.708	7.959
Zordunak	25.416	7.243	Merkataritzako hartzekodunak	16.708	7.959
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	0	111.000			
Eskudirua	15.997	9.840			
Aktiboa, guztira	18.209.149	18.714.126	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	18.209.149	18.714.126

Galeren eta irabazien kontua

Zor	2014	2013	Hartzeko	2014	2013
Gastuak	558.685	540.731	Diru-sarrerak	261.652	258.398
Bestelako ustiatze-gastuak	49.556	43.446	Negozio-zifraren zenbateko garbia	44.812	44.016
Konponketak eta kontserbazioa	30.267	15.911	Salgaien salmenta	22.485	22.485
Zerbitzu profesional independenteak	6.559	6.626	Bukatutako produktuen salmentak	22.327	21.531
Banku zerbitzuak eta antzekoak	92	36	Emandako zerbitzuak	-	-
Hornidurak	4.575	8.769	Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak	0	145
Bestelako zerbitzuak	5.369	12.104	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	145
Aparteko gastuak	9.919	-	Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	216.694	213.254
Ibilgetuaren amortizazioa	499.210	497.285	Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko emaitzari transferitutakoak	216.694	213.254
Ibilgetu materialaren amortizazioa	499.210	497.285	Ustiatzeengatiko galerak	297.178	283.316
Ustiatze-etekinak	-	-	Finantza diru-sarrerak	146	983
Finantza-gastuak	-	-	Finantza bidezko bestelako diru-sarrerak	146	983
Taldeko enpresen zorregatikiko interesak	-	-	Emaitza finantzarioak (galerak)	-	-
Emaitza finantzarioak (etekinak)	146	983	Zerga aurreko emaitzak (galerak)	297.033	282.333
			Ekitaldiko emaitza (galerak)	297.033	282.333

Aurreko datuetatik ondorioztatzen denez, sozietatearen 2014ko ekitaldiko galerek ehuneko 5 egin dute gora aurreko ekitaldikoekin alderatuta (297.033 euroko galerak 2014an eta 282.333 eurokoak 2013an).

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

